

# KISTI ETA AITA SANTI

(Aita Santi'ren idazkien artean, KISTI'ri buruzko au aurkitu dogu)

Kisti, idazlea dogu, Finlandikoa izan arren, euskeraz idazten dau. Itzaurre pitin bat eskatu eustan, emen daukazu berau.

Begiaurrean dozu berau, berak egin egiña, ainbat eta ainbat orrialdekoa. Ez naz azken saiaturko. Nik ba dakit bere bizitzatik zerbait.

Bein, arratsalde baten, Enbeitanean nebillan Keparen olerki billa, 1971 garrenaren inguruan; aren olerki liburua "GURE URRETXINDORRA" Buenos Aires'en argitaratua. Sukaldean, andik etxeratzeko nengoela, neskatilla gazte dotore bat jatxi zan goitik bera, Jelsinki'ko Kisti zan euskeraz ikasi gura ta emendik ebillena.

Atsegiña zan. Ikasten asia zan, eta naikoa ondo alkar ulertu giñan. Ondoren, beti ondo ulertu izan gara, bai berbaz, bai eskutitzez ogeita iru urte oneitan.

Emen dozu berak idatzitako liburua; berau Xabier Peña'ri eskiñitakoa dozu, bein ari esan eutsan: nik liburu bat egingo dautsut. Peña, euskal irakasle zintzoa il zan, e ta emen daukagu berak eskiñitako liburua.

Kistik ez daust esan iñoizbe zergaitik asi zan euskeraz ikasten, bere ikasketak amaituak lez eukazan eta orduan asi zan izkuntzak ikasten. Donostiko sendi bategaz eukan ezaupidea, eta onen bitartez asi zan gauzea atontzen, nun ikasi, zer ikasi eta abar.

Eta egun baten or daukagu enkartaldean, ez leku egokia euskeraz ikaste-ko, eta Xabier Peña, ainbateri euskeraz irakatsi eutsena sartu zan bitarteko; etzan esku txarrean jausi.

Nik, ibaiondoko kale barrenean ezagutu neban bigarren aldiz, euskeraz ikasten gogotsu ebillela. Arrezkero, sarri alkar ikusi izan dogu, euskeraz beti; bai Helsinkiko idazkietan, bai emengo jardun aldietan. Peñak sarri eroaten ebazan bere ikasleak ara ta ona. Ni be Kistigaz batera erabili nindun EUSKALERRIAN zear basterrak ezagutzen. Uda baten Kisti Helsinkitik etorria zan, bere ume seme alaba biekaz eta adiskide bategaz, au bere alabatxoagaz. Itzaltzu, Otxagabia ondoko erritxo baten geunkan gure egoitza, guztientzako, Kistiri atsegin jakon nik egunero esaten neban mezarara etortea eta beti iñostan eder be eder jakola meza ori. Kisti ez egoan bateatuta, eta berak esaten eustan, bera pekatari zala eta azkenean bateatuta pekatu danak parkatuko jakozala... Bein egun aretan, Leiren giñala, liburu pilloa ikusi gendun sarrerako atean. Kisti liburu zalea eta an geratu jatan liburu azterketan eta bai eta erosi be bat, "LEKAIDEEN MONASTEGIKO BIZITZA" bidean be luzaro irakurten joan zana. Or bere zaletasunak.

Itzi zur jengozala, sarri joan giñan MUSKILDA ermitara, ANDRA MARIARI bisita egitea. Bost egun an inguruetako erritxoak ezagutzen egin ondoren, gure etxeetara, Helsinkitarak lenengo gugaz batera Izarra ondora Enbeitatarak ikustera, gero Zornotzara, gero euren baserrira enbeitatarrei azken agurra egitera, eta azkenez Helsinkira euren kotxe eta umetxoekaz. Gero be sarritan egon da Kisti Euskalerrian, lurrau oso maite daualako.

Gero, emen liburu au, nik ikusteko eta ona nik eta zeanuritar batek ikusita. Idazle arrotz batek egindako lan oni ez dautsagu azterketarik egin nai izan. Bego berean, langillearen lana. Kistik emengo euskalkien barri ondo daki, eta ez gaitezen asi aren lana obetzen.

Azkenengoa eskutitzean au adierasten eustan: “euskeraren jabea ez naz, euskalki jatorrak ez dakizkit, eta gustientzako ere euskera ofizial bat bear dugu?”

... Neure euskera, ofiziala egin dut. Euskera batua NEURE ERITZIAREKIN batu dut! Euskera batuaren erregelak errespetatzen saiatu naz, beste alde guztietatik, atxeari dagokienez baino. Hatxea, nere ikusgunetik, aozko izkuntzan galdua bada, atzerakoa da, eta erromantizismo alperren señaile. Kaltegarria da. Sinbolo izan zedin nai zuten, eta sinbolo besterik ez da izan.

Izkuntza orokor baten, literatur izkuntza, naiko artifiziala da edozelan ere; gaiñera biurritzea, aozkatu gabeko letrak erantsiz, umekeria da, nere ustez.

Mente latinoaren froga da, espaiñolentzat eta frantzetarrentzat ondo dagona, mutuak eukitea. Euskeraren espirituaren aurkakoa da H ori aozkatzen ez ba da, H bezela, eta ez J bezela noski. Au nere iritzi pertsonala da.

Kistik erakutsi onak emoten dauskuz. Euskaldun barriak askotan, euren iritzi zekenki erakusten dauskue. Bego emen Kisti'ren, atzeritar eta euskaldun barri danaren aburu eta irakatsi zorrotzak.

Aita Onaindia